



IMAZ, ALTZOK EMAN DUEN BERTSOLARI HANDIA

XIX. mendeko bertsolari famatua izan zena atzoko egunez hil zen, duela 114 urte >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2007-11-10

V.URTEA 1284.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

MARTIN MANTXO EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

«Gobernuek multinazionalak adina erru dute irregulartasunen aurrean»

TOLOSA Zor ekologikoaren batzordean egiten du lan tolosarrak Ekologistak Martxan taldearen baitan

HELBURUA Sentsibilizazio kanpainak, salaketa publikoak eta lege mailakoak egitea dira jardura nagusiak



Eskuin-ekzer: Iñaki Bea, Daniel Arostegi, Julian Rodriguez eta Ricardo Garcia. ESTI/EZEIZA



A. IMAZ

MARIA ISABEL ARRIETA KULTUR ZINEGOTZIA

«Lan handia eskatzen du Kultur Asteko ekitaldiak antolatzeak»

INTEGRAZIOA HELBURU, SENTSIBILIZAZIO ASTEA

TOLOSA Etzi hasiko da Gainditzen elkarteak antolatutako IV. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea, kontzertu eta zinemarekin z

BERASTEGI Atzo hasi zen herriko Kultur Asteak «herritarren parte-hartzea bultzatzea» du xede e

Foto Depilazioa Azkenik bukatu da ilearen arazoa

Desape + Itzondo Abonua 5 sesioak (+ 1 papertxoa) 750€

Desape Abonua 5 sesioak (+ 1 papertxoa) 300€

Itzondo Abonua 5 sesioak (+ 1 papertxoa) 475€

Shuyana Edergintza
Jardua Ecologikoa Nº 3 114
Tolosa
Tel. 943 67 54 89

Eskeintza baliokoa abonua hartuta 19/11/07-tik 1/12/07-ra

Gorrentzako zinema eta kontzertuak izango dira Sentsibilizazio Astean

Gizartea » Etzi hasiko da Gainditzen elkarteak antolatutako IV. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea

ESTI EZEIZA

Gorrek dituzten muga eta ezintasunez jendea ohartzeko asmoz, Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea antolatzen hasi ziren duela lau urte Tolosako Gainditzen elkarteak. Urteko urterako egitasmo berriak prestatzen dituzte, eta aurtengoan, Frantzia egiten den antzeko topaketa bat oinarrituz, berrikuntza ugari dakartzate.

Astelehenean, hilaren 12an, hasiko da Sentsibilizazio Astea, eta Babarrun Asteko ekitaldiekin bat eginez, hainbat jardura emango dituzte aurrera datozen egunetan. Jende guztiak parte hartu ahal izango du gauzatuko diren jardueretan: musika emanaldietan, antzerkietan, mimoan, dantza ikuskizunetan, erakusketetan, hitzaldietan eta jokuetan. Hori bai, hauek denak gorrentzako prestatuak izango dira, hau da, ez dira ohiko emanaldiak izango.

Gisa honetako jardunaldiak Tolosan bakarrik ematen dira, hauek, boluntarioen artean gauzatuak baitira. Berrikuntzen artean, estrateko Euskal Herrian, gorrentzako film bat ikusi ahal izango da. Honez gain, «gezurra badirudi ere» gorrei zuzendutako kontzertua ere izango da.

Sentsibilizazio aste honek, gorren eta entzun dezaketenen arteko harremana gerturatzeko eta sendotzea du xede. Izan ere, egitasmoaren aurkezpenaren Gainditzen elkarteak azaldu zuten, «eguneroko bizitzan zailtasun ugari ditugu, askotan albo batera uzten baitezake entzun dezaketenen». Beraian esanetan jende asko «beldurtu» egiten da gorren gaitasun hurbiltzean, uste dutelako ezin izango direla komunikatu inola ere. Horregatik, gerturatzeko pauso hori ematea ezinbestekoa dela uste dute Gainditzenekoek.



Aurkezpen ekitaldian, eskuin-ekzer: Iñaki Bea, Daniel Arostegi, Julian Rodriguez eta Ricardo Garcia. ESTI EZEIZA

» EGITARAUA

Azaroak 12, astelehena

■ **Goizean.** Komunitate gorraren egungo egoerari buzuko hitzaldia Samaniego ikastetxeko ikasleei.

Azaroak 14, asteazkena

■ **20:00.** *Pantomimas Kutxo* mimo emanaldia Leidor zineman. Hau dohainik izango da.

Azaroak 15, osteguna

■ **19:30.** *Ume gorren gaur egungo egoera egoera Derrigorrezko Hezkuntzan* hitzaldia. Hizlariak Bego Balardi eta Blanca Hernandez izango dira. Hau Kultur Etxean izango da. Bertan, Zeinu Hizkuntza Interpretatzaile egongo da eta sarrera doakoa izango da.

Azaroak 16, ostirala

■ **20:00.** *Sacrificio ecologico* (Lazaro Contreras) laburmetraia eta an-

tzerki emanaldiak, Lituaniako dantza eta aktore talde baten partaidetzarekin, eta Gaizan taldearen eskutik. Hau Leidor zineman izango da. Guztiak zeinu hizkuntzan izango dira. Sarrera hiru euro kostako da.

■ **22:00.** Casino elkartearen afaria. Bertan entzule eta gorren asteko topaketa burutu nahi da. Afaria eta gero, musika eta ekintza desberdinek egongo dira. Ikuskizunetarako sarrera doakoa izango da.

Azaroak 17, larunbata

■ **09:30.** Euskadiko Pertsona Gorren Elkarte desberdinen asteko herri kirolak, Tolosako frontoiak.
■ **14:00.** Tolosako babarrun jatea.
■ **18:00.** *Quiero ser oyente* laburmetraia eta antzerki emanaldiak Leidor antzokian. Joklo artista, Parisiko aktore, Atzegi antzerki tal-

dea eta beste hainbat talderen partaidetzarekin. Sarrerak lau euro balioko du.

■ **21:30.** Casino elkartearen afaria. Ondoren musika eta umoreaz gozatu ahal izango da Parisiko dantzari eta musikariek. Baita Lituaniako dantzari eta aktoreekin ere. Sarrera doakoa izango da.

Bestetik

■ **Ostirala eta larunbata.** Pertsona gorrek egindako artelanak erakusgai izango dira Kultur Etxean. Horrez gain, San Frantzisko Pasealekuan komunikazio mugak islatzen dituzten egur xafak egongo dira.

Abenduak 15, larunbata

■ **Zehazteke.** Autoestimaren inguruko taller bat eramango da aurrera Bruno Marcelleren gidaritzapean.

Herri biziaren seinale

» Kale-kantoitik

Joxemi Saizar

Kaleko txartelak irakurtzea gustatzen zait. Herriko paretan jakin batzuetan itsasteko lana hartzen dutenen erantzulea naiz. Kanpotik ere etorritzen dira jartzera. Plaza garrantzitsua kontsideratzen dutelako izango da. Zerbaiten antolatzen aritu naizenean, zailtasun bera izan dugu askotan: mezezi al du kartelak jartzea? Inork irakurtzen al ditu? Baietz iruditzen zait. Era, neurri eta kolore guztietakoak dira txartelak. Handiak ez dira askotan interesgarriak. Ostegun eta ostiral gauean jartzen dituzte gehienak. Badakite asteburuan bilduko dela jende gehiena kalean: Amasako jaiak, gaurko mus txapelketa eta antzerkia, biharko partiduak, hurrengo asteko babarrun festa... Horregatik horietako astegun batean gauzatu paseatzea gustatzen zait. Herriko kronika irakurtzen ariko banintz bezalaxe da. Hurrengo egunetan gertatuko denaren berri jasotzen dut. Kaleko egunkaria dira. Herri biziaren seinale.

Tolosaldeko zazpi miragarriak edo ikurrak aukeratu dituzte Hirukideko ikasle batzuk, munduko miragarriak birplanteatu behar dituztela aprobetxatuz. Nire aportazio txikia ere egin nahi nuke alor honetan. Uzturre-Santa Maria-Idiaker-Zerkausia postalak izan da urtetan Tolosaren ikur eta berrikuntzen ondorioz bere lehen postuan sendotu egin dira nire ustez. Horiekin batera gure jai jendetsuenak ezin falta, noski. Azken urtetako berrikuntza gisa, beste hiru erantsiko nituzke. Eskultura mostra sartuko nuke bere osotasunean, Txillida eta Oteiza bezalako goren mailako artisten lanak nabarmenduz. Usabal kiroldegia fenomeno sozial gisa sartuko nuke, eskualdeko aktibitate leku eta bilgune garrantzitsua bilakatu delako. Azkenik, auzo berrien aparatu sortu diren berdegune eta pasealeku berriak aipatuko nituzte: Zabalbarreta, Arkaute, Iurre.....

H Urteurrenak

II. urteurrena
JOXEPA AMUNDARAIN TOLOSA
2005eko azaroaren 10ean hil zen



Hosto bat, hosto bi orbelak bide gozoaren irudi pausu bat, pausu bi zure arrastoan guk lasai segi.

Zure familiarik

Haren aldeko meza BIHAR, IGANDEA, 11:30ean San Martingo ermitan izango da. Aldez aurretik mila esker.

AMEZKETA
2007ko azaroaren 10ean

Urteurrena
IGNAZIO ANTONIO ULAZIA ARTANO
1912/V/1-2006/X-24



MARTIN GOGORZA BALERDI
1945/I/29-1996/XI/15



Hauen aldeko meza, bihar igandea, goizeko 11:00etan Ibarra San Bartolome elizan ospatuko da. Mila esker aldez aurretik.

IBARRAN
2007ko azaroaren 10ean

I. urteurrena
JOSEBA ALBIZURI ETXANIZ 'TORRE'



Nahiz jada urtebete falta hemendikan ta hutsune handia utzi gure ondoan zure kontuak dira orain gure artean beti egongo zara gure bihotzetan

Emaztea Bittori Odriozola, Iosu eta Edurne Larrañaga eta Itziar seme-alabek

Dharrak: Bihar, azaroaren 11n, eguingo da haren aldeko meza, 12:30ean, Azpetiko parrokian.

AZPETIA
2007ko azaroaren 10a

E Elkarrizketa

MARTIN MANTXO › Ekologistak Martxan taldeko kidea

«Multinazionalak adina erru izaten dute gobernuek»

Tolosa › Ekologistak Martxan taldeko kidea da Martin Mantxo; ekologismo soziala lantzen dute, eta irregularitasunen aurrean informazioa eman eta salaketak egiten dituzte



HITZA

INIGO TERRADILLOS

Ekologistak Martxan taldeko kidea da Martin Mantxo (Tolosa, 1969). Ekologismo soziala jorratzen duen taldea da.

Zein da Ekologistak Martxan taldearen eginkizuna?

Elkarren artean Euskal Herrian bizi ditugun ingurumen arloko arazoekiko ikuspegi berdintsua dugun pertsonok osatzen dugu taldea. Ekologismo sozialaren iritziz, ingurumenaren arloko arazoek ekoizteko eta kontsumitzeko eran dute sorburua. Ingurumena kalteztzen duten jardueren aurkako sentsibilizazio-kampainak, salaketa publikoak edo lege mailako salaketak egiten ditugu.

Zein arlo lantzen duzu zuk?

Nire batzordea Zor Ekologikoarena da. Herrialde txiro, zordunei begira aritzen gara lanean. Batik bat, Ekuador, Bolivia eta Nigeriako erakundeekin ari gara elkarlanean. Lurralde hauetako Zor Ekologikoak erregeaiekin (petrolio, gasa edo ikatza) eta lurralde aberatsakoa azpiegitura handiekin du zerikusia. Arlo edo batzorde honetaz gain, beste hainbat ere jorratzen ditugu taldean, hondakinak, garrarioa, kontsumoa... edo baita bestelako gai puntualak ere.

Nolako ekitaldiak antolatzen dituzue?

Esaterako, beste gizarte mugimenduen laguntzarekin (Komite internazionalistak, CGT-LKN) Zor Ekologikoari buruzko herrialdeetako epaiketa antolatu genuen urriaren 27an Bilbon. Enpresa transnazional espainiarrek Zor Ekologikoaren daukaten erantzukizuna epaitzeko helburuarekin

egin genuen. Herri epaitegiak ekimen sinbolikoak dira enpresen aktibitate deliktiboak publikizatzeke, eta, kasu honetan, Repsol IPF eta BBVA enpresak izan ziren protagonista. BBVAri eta Repsol YPFri ingurumen eta gizartearen kontrako delituak leporatzen zaizkie, bai Euskal Herrian eta bai Latinoamerikan. Datorren urtean Liman Hegoameriketako lehendakariak bilduko diren topaketa egongo da merkataritzaz eta han globalitatearen aurkako mugimenduak beste topaketa bat antolatuko dugu horren aurka. Hor beste epaiketa bat egingo dugu eta azken epaia eman.

Multinazional handien aurka egitea ez da ba lan erraza izango.

Oso boteretsuak dira, baina irudiaz asko kezkatzen dira. Irudi on hori saltzen uzteko eskatzen diegu

guk badakigulako gaizki ari direla dena den, hauek bezala, gobernuek ere erru handia dute, beraiek utzi egiten baitiete; Eusko Jaurlaritzaren energia egitarauan ez da planteatzen CO2 gutxiago ekoiztea. Gero eta gehiago kontsumitu eta zentral gehiago egitea, hori da eredu. Honen aurrean presioa sartu behar da, eta gu horretan saiatzen gara.

Zein izaten da zuen egunerokoa lana?

Lemoizen itxieraren urtemuga da orain. Horren inguruan antolatuko ditugu ekintzak, eta bestela, mendi irteerak antolatzen ditugu kalteak ikusteko, natura ezagutzeko, informatzeko... AHTren aurkako plataforma, edo erraustegien aurkako arekin esaterako elkarlanean aritzen gara. Bilbon dugu kontrako delituak leporatzen zaizkie, bai Euskal Herrian eta bai Latinoamerikan. Datorren urtean Liman Hegoameriketako lehendakariak bilduko diren topaketa egongo da merkataritzaz eta han globalitatearen aurkako mugimenduak beste topaketa bat antolatuko dugu horren aurka. Hor beste epaiketa bat egingo dugu eta azken epaia eman.

Gaur egungo gizarteaz zer esan dezakezu?

Kontzientzia gehiago dago orain, aldaketa klimatikoarekin adibidez. Antolatzen ditugun itzalaldietan ikusten dugu hori jende ugari hartzen baitu parte. Era berean, oso sartuta gaude kontsumoan.

Z Zurea da hitza info



Gabonetako argiak dagoeneko?

TOLOSA › Herri osoak ikusiko zuen bezala, dagoeneko jarri dituzte Gabonetako argiak. Azaroaren hasieran baino ez gaude eta dagoeneko argiak jartzen? Ez al da azkarregi? Eta ziur seguituan hasiko direla guztiak pizten horrek dakarren gastu eta kutsadurarekin. GORKA ARBILLAGA

Laburrak

Ilunbe Gazte Abesbatzaren saioa, gaur, 20:00etan

TOLOSA › Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren XXV. Urteurrenako ospakizunen egitarauaren baitan, Ilunbe Gazte Abesbatzak kontzertu bat eskainiko du gaur, 20:00etan. Emanaldia Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko egoitzan (Plaza Zaharrea, Ildiaker Jauregia) izango da. Pianoan Isabel Mantecon ariko da, eta guztien zuzendaritza, berriz, Josu Elberdinez izango du..

Durangoko Azokara autobusez joateko aukera

TOLOSALDEA › Urtero bezala, Durangoko Azokara joateko autobusa antolatu du Galtzaundi euskara taldeak. Hain zuzen ere, euren asmoa egun pasa egitea da Euskal Liburua eta Diskoan Azokan, izan ere, goizez irtengo da autobusa, eta gauetz iritsi. Bazkideek 8 euro ordaindu beharko dute bazkide ez direnek 8. txartelak eskuratzeko Galtzaundiren edo Aiurriren egoitzara jo beharko da.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

Jarduna
administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

- KONTABILITATEA
- ZERGAK
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

H Hilberria

KOLDO IRAOLA TEJERIA
Jauna
-Goianbego-

«Mendia maite zenuen eta mendian gelditu. Adiorik ez gero arte baizik»

VOITH-eko LAB-en atal sindikala

IBARRAN
2007ko azaroaren 10ean

KOLDO IRAOLA TEJERIA
Jauna
-Goianbego-

«Zure laneko lagunak»

VOITH

IBARRAN
2007ko azaroaren 10ean

ARAMBURU

Salgai (Tolosa).
Etxebizitza Estrella eraikinean.
Salgai (Ibarr).
Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak.
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.
Salgai (Ibarr). Lokala Euskal Herria kalean.
Salgai (Tolosa).
Garaje itxia San Frantzisko kalean.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte).
Lokala, tximiniarekin, zentroan.
Alokatzeko (Tolosa).
Etxebizitza, Nafarroa etorbidean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajea irekiak, Araba etorbidean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garaje itxia, San Frantzisko eta Iurren.
Alokatzeko (Leaburu bidean).
Pabilloi industriak.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

'Anoetako txokoak' gai hartuta, argazki lehiaketa jarri du abian Udalak

Anoeta » Herrian erroldatuta daudenek edota Herri Ikastolako ikasleek hartu dezakete parte

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak argazki lehiaketa jarri du abian. Anoetan erroldatuta daudenek edota Anoetako Herri Ikastolako ikasleek hartu ahal izango dute. *Anoetako txokoak* izango da gaia eta argazkiak aurkezteko epea hilaren 20an amaituko da. Anoetako udaltxe-an utziko dira, paperean errebelatuta eta 13x18 neurrian. Lehiaketa-ri buruzko informazio gehiago udaltxe-an jaso daiteke.

Kilometroak 2008ko aurkezpena gaur, herritarrei zuzenduta

Irura » Datorren urteko urrian egingo den ekitaldi nagusiari begira, urte guzti honen hasierako txupinazoa botako dute

ERREDAKZIOA

Irurako Ikastolak Kilometroak 2008aren inguruko lehen ekitaldia antolatu du gaurkorako. Herritarrei zuzendutako aurkezpen jaialdia izango da. Datorren urteko urrian egingo den ekitaldi nagusira begira, urte guzti honi hasiera emango dion txupinazoa izango da ekitaldia.

Hori guztiagatik, herri giroan egin nahi dute jaialdia, herritarrei

«dagoeneko egiten ari diren eta egitea tokatuko zaien esfortzua eskertzeko», azaldu du Joxe Mendizabal KM 2008ko koordinatzaileak. Aurkezpen ofiziala Tolosako Leidorren izango da, hilaren 18an.

Bertsolariak eta barrikotea

18:00etan hasiko dira ekitaldiak ume jolasekin. 19:45ean Aitor Mendiluze eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira. 20:00etan txupinazoa botako dute, urte oso iraungo duen ibilbideari abiapuntua emanez. Ondoren barrikotearen hasiera (bakoi-tzak bere afaria eman behar du) eta urdaiazpikoaren mozketak. Afalostean, bertsolariak, urdaiazpikoaren zozketa eta erronomia.



Pailazoen urteroko arrakasta

AMASA » Urterokoa bihurtzen ari da Amasako festetan. Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldiak frontoia ia guztiz bete zuen eta Amasa bera kotxez gainezka zegoen atzo arratsaldean. Gaur, besteak beste, asto karra eta herri bazkaria izango dute San Martin jaietan. I. GARCIA



Amuarrainak hilda Erreka bailaran

ASTEASU » Arrantzale Elkarteak kide batek Asteasuko Erreka bailaran behi mindaren isurketa batengatik amuarrainak hilda agertu direla salatu du. Foru Aldundiari «askotan kexatu» direla azaldu du, «baina ez du irtenbiderik ematen», zehaztu du arrantzaleak. HITZA

S Soka motzean

«Gizakiarentzat hobe da egunez lan egitea»

JOSE MARI URRIA,
HITZAko banatzailea

I. GARCIA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eta GOIERRIKO HITZA egunkarien gaueko banaketaz arduratzen da Jose Mari Urria. Tolosarra izatez, ikaztegiatan bizi da.

Nolakoa da gauetan lan egitea?

Ondo. Lo gutxi egiten da, baina trafiko gutxiago dago ere.

Zer ordutegi duzu?

21:30etik 02:30era aritzen naiz.

Alderik txarrean gaueko lanean?

Berez gizakiarentzat hobe da egunez lan egin eta gauetz deskantua hartzea.

Alde onik?

Trafiko aldetik lasaigo dagoela.

Tinta eta paper usaina gustatu beharko zaizu, ezta?

Ohituta nago. Lehen ere lana egina dut inprentan, kartoi eta paperan artean.

Furgetan baduzu ohiturarik?

Normalean irratia entzuten dut. Radio Euskadin, eztabaida politikoa eta kirolak entzuten ditut.

San Kristobalen irudirik ez?

Ez, ez daukat horrelako ohiturarik.

Egunkari aleak mugitzeko fisikoki prestatuta egon behar da?

Apartekorik ez. Bestela ere kirola egiten ohituta nago.



I. GARCIA

Laburrak

Zinema eta haurrentzako antzerkia, ikusgai herrian

VILLABONA » Haurrei eta helduei zuzendutako zinema eta haurrei zuzendutako antzerkia izango dute asteburuan Villabonan ikusgai. Gaur, *Hitzen lapurra* antzezlanak ikusi daiteke Gurean, 17:00etan. Bihar, *Harry Potter y la Orden del Fenix* filma, 17:00etan. Bestalde, helduei zuzendutako *La extraña que hay en ti* filma gaur ikusi daiteke 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean, eta etzi, ikuslearen eguna, 22:00etan.

Behar-Zanako pilotarien partidak asteburuan

VILLABONA » Gipuzkoako Ezker Paretako Kutxa Saria jokatzen ari dira Behar-Zanako pilotariak. Senior mailan, Joxe Mari Aranburuk Bergaran jokatuko du. Binakakoan, Iñaki Lizasok eta Jokin Altunak jai izango dute. 3. mailako Iraola-Nazabal eta Ordozgoiti-Inza jubenilek etxean jokatzen dute gaur, baina partidak Zizurkilgo Intxaurren izango dira, 12:00etan hasita. Otaegi-Artaza kadeteek Astigarragan jokatuko dute.

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kiroldegia
Tolosa Tel.: 943 577573
www.bidebide.es

bidebide
restaurantebarr

Kimetz

denda berria

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Gaztain-Motzetan landatu zuen pagoa 1836an, ezkondu zen urtean. Egun, Euskal Herriko pago dotoreena da. N. URBIZU

XIX. mendeko bertsolari famatua izan zen atzoko egunez duela 114 urte hil zen altzotarra. Bertso-jartzailea izan zen gehienbat, eta kalean edozein lekura paperarekin eta arkatzarekin joaten omen zen Imaz bertsolaria.

Imaz bertsolariaz bi hitz

NEREA URBIZU

Altzo bertsolaria, Imaz bertsolaria... Bera da Altzok gaur egun arte eman duen bertsolaririk famatuena: atzo 114 urte, hil egin zen bere base-rrian, Legarren. Altzoko eskolak Imaz bertsolaria izena du, haren omenez, noski. Baina badira beste hainbat kontu...

Manuel Antonio Imaz Garaialde (1811-1893) duela 114 urte hil zen atzoko egunez. Bertso-jartzailea zen; bat-batean ere ariko zen seguru asko, baina bertso papere-tan utzitako emariagatik egin da ezagun.

Antonio Zavala bertso-biltzaileak lekua egin zion *Atuspoa* sailean, eta bertsolariaren lan eta bizitzako hainbat pasarte argitaratu zituen. Hordik hartuak dira erreportaitxo honetan argitatuak.

Altzoko pagoa landatu zuen

Maria Paula Jauregirekin ezkondu zen 1836an. Ezkonduko urtean pago-landare bat aldatu zuen Imazek Basaitz mendian, Gaztain-motzeta basoan. Gaur Imazen Pagoa izenarekin ezagutzen da pago

hau: Arreta handiz kontu egiten omen zion Imazek. Zenbat loditzen ari zen ikusteko, tarteka, gerrikoa kendu eta neurtu egiten zuen. Gero, etxera joan eta kupela neurtzen omen zuen, eta hala antzematen omen zion zenbat irabazi zuen azkenekotik.

Gaztain-Motzetara jo behar da Altzoko pago miresgarri hau ikus-

Baserriko edozein lanera ziohala ere, poltxikoan arkatza eta papera hartuta joaten omen zen

teko. Hau ere, Euskal Herriko zuhaitzen artean berezia da, bere dotoretasun eta tamainarengatik. 1997. urteaz geroztik dago bereziki babestua. Zuhaitz izugarri honek 5,60 metroko diametro dauka, eta 20 metroko kukuila. Zuhaitzak bertan daramatza urte mordoan: indartsu, eta beste hainbeste urte bertan egiteko asmoz.

Bertsoak idazteko beti prest

Bertso-jartzaile oparoa eta ezaguna izan zen. Hala esaten omen

zuen Pello Errota bertsolariak: «Bertso jartzen gu ez gera Imazen zapatak lotzen asteko ere!».

Bertsoak jartzeko grinak eragin-da, baserriko edozein lan egitera zihoalarik ere, poltxikoan arkatza eta papera hartuta joaten omen zen. Eta bertsoa bururatutakoan, lanari utzi eta idatzi egiten omen zuen. Ama asko haserretzen zitzaion horregatik, eta errietan egiten omen zion: «hiri eskola handia ematen hor aritu gaituk, eta orain ezitguk lanik batere egiten, bertso eskribitu besterik ez dakik eta!».

Erljio gaikoak gehienak

Erljio gaia duten bertso sortak dira ezagutzen zaizkion gehienak. Honen zergatia azaltzeko Antonio Zavalak hiru arrazoi ematen ditu: nagusiak agindu ziolako, Tolosako Erretoreak agindu ziolako, eta bere barruak hala agintzen ziolako. Halere, bestelako bertsoak ere jarri zituen baina gutxi batzuketan ezik, ez dira ezagutzen.

Erljio-gaia zutenei bere izena beti jartzen zien, eta inoiz ez istilurik ekar ziezaiketenei: neska-mutilen arteko, gerragarikoei...

Laburrak

Aurrera-Saias eta Zazpi-Isturri bihar Beotibarren

PILOTA ● Gaur Aurrera-Saias pilota eskolako bi partida izango dira Ibarren, 11:00etatik aurrera: Lizaribar-Mujika Añorgaren aurka (jubenilak) eta Montiel-Mujika Ilurperen aurka (seniorrak). Beotibarren bihar bi partida izango dira: Aspe-Huarte Usurbilen aurka (seniorrak) eta Baez-Telletea Zazpi-Isturriren kontra (seniorrak).

Dantzari txikiak gaur, eta bihar azoka izango dira

ALEGIA ● Azaro Kulturalean murgilduta daude Alegian. Gaur Dantzari Txiki eguna izango da, eskualdeko hainbat herritako dantzariak bilduz. Bihar, berriz, animalia eta barazki azoka izango da 11:00etan hasita, goiz osoan zehar. Besteen artean, herriko bertsolariek bertso paperak ere salduko dituzte. Tarteka, abesten ere ariko dira.

Txikien Eguna gaur, Kultur Astearen baitan

AMEZKETA ● Gaur Txikien Eguna ospatuko dute Amezetan, Kultur Astearen baitan. Besteen artean, oreinak ikustera joango dira eta mendi ibilaldi bat egingo dute, 11:00ak aldera. Bazkaria izango da ondoren, eskolan. 16:00etan jolasak izango dira. 19:00etan, berriz, Ugarteko elizan Txintxarri abesbatzen kontzertua izango da, gehi sardin jatea ondoren, frontoian.

'Bota Patxa!' antzezlan bihar 18:00etan izango da

BALIARRAIN ● Baliarraingo Kultur Elejiraren baitan bihar gaztain eta talo jatea izango dira frontoian. Ondoren, *Bota Patxa!* antzezlan umoretsua ikusteko aukera izango da Kultur Etxean, 18:00etan. Joseba Usabiaga eta Iker Galartza dira antzezlaneko aktoreak. Datorren ekitaldia ostegunetan izango da eta kasu horretan finantzei buruzko hitzaldia izango da.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Beasainen, 75 m²-ko etxea. 50 m²-ko terrazarekin. 3 logela, sukaldea, egongela, bainu-gela eta trastelekua. 680 23 85 12.
■ **Mobilhome.** Nafarroan mobilhome bat sartzen da, igerilekua amankomunean duen urbanizazioan. Interesatuak deitu: 943 11 7343.

EROSGAI

■ **Umeentzako aulkia.** Umeentzako

ko Quinny XL Freestyle 3 markako bigarren eskuko kapazoa erosi nahi nuke. 618 47 13 17.

LANA

■ **Haur zaintzailea.** Tolosan, emakume euskalduna behar da bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 646 95 06 59.

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Astelehentik ostiralera, goizez bi orduz. 615 00 45 22.



Villabona
optika

Kale Berria 23A
Villabona
943 11 18 40



txokoa
h

El jefe de todo esto

antzezlanerako
2 sarrera pare
Tolosako Leidor Aretoan
Azaroak 10 • Larunbata, 20:00

irabazleak:

- Gorka Otxoa-Aizpurua (Anoeta)
- Maria Dolores Leunda (Tolosa)



Cesaria Evora

kontzerturako
sarrera pare bat

Tolosako Leidor Aretoan
Azaroak 13
Asteartea, 21:00

irabazlea:

- Lurdes Ulazia (Ibarra)



L Laburrak

Bertso Afaria hilaren 17an, Agirre eta Gabilondorekin

GAZTELU Bertso Afaria antolatu dute Gazteluko gazteek, herri elkartearen laguntzarekin hilaren 17rako. Amaia Agirre eta Nahikari Gabilondo bertsolariak izango dira kantuan eta Iker Iriarte gai jartzaile lanetan. Bertso Afaria 21:00etan egingo da Herriko Elkartearen eta izena emateko zerrenda jarri dute Elkartearen. Bertan izena eman ezin duenak, 943 30 07 27 telefono zenbakira deitu beharko du, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Amaia Agirre galdetu bear da eta zerrendan apuntatzeko azken eguna etzikoia izango da. Menua 20 euro ordaindu beharko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Azkenik bertara agertzeko gonbita luzatu dute.

Emeterio Sorazuren omenez ospakizuna

IBARRA Ibarra Kristau Elkarteak Emeterio Sorazuk egindako lana eskertzeko, ospakizuna egingo dute hilaren 25ean. Lehenik hamaiketako Meza Nagusian bilduko dira, «12 urtetan erretore zerbitzuan, Ibarra eta kultur arloan egindako ibilbidea» eskertuko diote. Mezaren ondoren eta ospakizunarekin jarraitzeko, Izaskungo Izaskun Jatetxean herri bazkaria antolatu dute. Bertan, umeentzat eta helduentzat aukeratu dituzte menuak, ondorioz, «denak gonbidatuta daudela» jakinarazi dute Kirstau Elkarteak kideek. Bazkari-rako txartelak betiko lekuetan har daitezke: San Bartolome Plazako Mertxenean eta Euskal Herria kaleko Igaro eta Lourdes dendetan hilaren 20 baino lehen.



herri hizkeraren gaineko II. jardunaldia
Ondarroan, 2007ko azaroaren 30ean
Kofradia Zaharrean

9:00 - 9:30

Dokumentazioa jaso eta jardunaldiaren aurkezpena

09:30 - 10:30

Bizkaiera eta Batua (b)uztartzurik Adolfo Arejita eta Nagore Etxebarria LABAYRU ikastegia

10:30-11:30

Ahozotasuna eta herri hizkera Eneko Barrutia MENDEBALDE alkartea

11:30-12:00

Tartea: Hamaiketako eta materialen erakusketa

12:00-13:00

Gehixago eta hobeto programa Estepan Plazaola Bergarako Udaleko euskara teknikaria

13:00-14:00

Tokiko euskara batua Goienaren estilo liburuan Iban Arantzabal ikus-entzunezkoen zuzendaria Goiena komunikazio zerbitzuak koop. E.

informazioa eta izena ematea >

94 683 36 68
mrey@ondarroakoudala.net
Ondarroako udaleko euskera saila

Parte hartzeko matrikula egin behar da: 20 euroko diru-sarrerarekin Udalak BBKn daukan k/k honetan: 3830434777 eta izena eman, Udaltzeko euskara sailean.



Ondarroako Udala

antolatzailea:



EUSKO LEHIAKUNTZA
GOBIERNO VASCO

laguntzaileak:



BFA DFB

Bizkaiko Foru Akademiak
Deputazio Foral de Bizkaia

E Elkarrizketa

MARIA ISABEL ARRIETA > Kultur Zinegotzia

«Kultur Asteak atzetik lan asko egitea eskatzen du»

Kultura Atzo hasi zen Kultur Astea Berastegin, bi astebururen inguruan ekitaldi ugari antolatu dituzte «herritarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz»

ASIER IMAZ

Berastegin Kultur zinegotzia da Maria Isabel Arrieta (Lasarte, 1962). Herriko talde ezberdinekin, Kultur Astea antolatzen aritu da. **Kultur Astea norik eta zein helburrekin antolatzen duzue?**

Herriko gizarte eragile ezberdinek antolatzen dute Kultur Astea. Lan horretan Udalarekin batera, Aldin, Basurde eta Urepele Elkarteak, Muñagorri Herri Ikastetxea eta Guraso Elkarteak aritu dira. Helburua edo ekitaldi garrantzitsuena berriz, azken eguneko azoka izango da, nahiz eta beste ekitaldiak ere garrantzia izango duten kulturaren inguruko gauzak ikusteko garaia. Bi asteburutan hitzaldi, musika, antzerki eta abar egongo dira azokaz gain.

Lan talde handia eta lan ugari eskatzen duen egitaraua da, beraz.

Bai. Atzean lan asko dago, gauza asko lotu behar direlako. Orain dela hilabete pare bat hasi ginen antolatzen. Bileretan elkartzeko gara eta bakoitzak gauza desberdinak proposatzen ditu, eta gero denon artean erabakitzen dugu zer jarri edo zer kendu. Beti ere aurrekontua kontutan hartu behar da, azkenean berak mugatzen baitzaiztu.

Berastegira gerturatzeko denak zer aurkituko du gaur?



ASIER IMAZ

Egun guztirako egitaraua prestatu dugu. 09:00etan mendi irteerarekin hasiko gara; haurrak eta gurasoak biltzeko asmoz antolatu dugu. Onddo eta perretxiko bilajongo gara, nahiz eta ez dakit garai honetan bilduko ditugun. Arratsaldean berriz, perretxikoen inguruan hitzaldi bat egongo da. Gero 18:30ean haragi gosia, txorizoa eta abar jarriko ditugu gaztainera laguntzeko. Musika, sagardoa, ardoa... Herriko giroa bultzatu eta ondo pasatzeko helburua dugu frontoian. Hau egingo dugun lehen aldia izango da, gaztainera zerbait jateko jartzearena, honekin parte-hartzea bultzatu nahi dugu. Ondoren, 22:00etan Txiki Plazaren diapositiba emanaldia egongo da, iraupen luzeako eskia buruzkoa. Txiki Plazas tolosarra da, iraupen luzeako kiroletan aditua eta kirolari famatua.

Bihar antzerki emanaldi bikoitza.

Mezarekin hasiko da eguna eta ondoren, Maitzak Akordeoi Orkestren kontzertua jarri dugu. Tolo-sako 10 edo 12 gazte dira hauek eta 30 minutuko saio bat eskainiko dute. Igandea San Martin eguna denez, zerbait berezia egin nahi genuen eta kontzertu bat jartzea erabaki genuen. Arratsaldean Mus Txapelketa herrikoia eta haurrentzako antzerki emanaldia egongo da Muñagorri eskolan. 17:00etan *Astobat hipodromoan* ikusteko aukera izango dute gaztetxoek. Helduentzat berriz, 18:30ean *Lapur Zuloa* antzerki emanaldia egongo da frontoian.

Biharkoaren ondoren, atsedanaldia izango da hilaren 15a bitarte.

Jendea lanean ibiltzen denez aste-azken zehar, parte hartzeko aukera handirik ez du izaten. Horregatik, partaidetza handiago izateko bi asteburutan antolatzen ditugu ekitaldiak.

Z Zurea da hitza



Urdelar Biltokian jai eta auzolana

Elduain Urdelar Biltokian gaztain jatea, herri-afaria eta ospakizunen ondoren, Biltokia pintatzeko lanak hasiko dira auzolanean

Elduaingo Urdelar Biltokian gaztain jatea egingo hilaren 17an, larunbatean. Gaztainak tarteko direla, herri-afaria alai ospatzea es-

pero da Urdelar Biltokira elkartuko diren artean. Hurrengo astean berriz, hau da, hilaren 24ean, Biltokia pintatzeko lanari ekingo zaio. Pintatze lanak auzolanean egingo dira eta bertan parte hartu nahi dutenek, hilaren 24ean, larunbatean, lanera agertzea besterik ez dute izango. Lanerako prest eta lanera agertzen den guztiari, otordua emango zaio, noski. **Urdelar Elkarteak.**

Jubilatu Eguna eta eskerrak parte hartu dutenei

Gaztelu Iragan urriaren 28an Jubilatutako Eguna ospatu zen. Meza, dantzari saioa eta bazkaria izan ziren. Egun ederra pasatzeko aukera izan zuten gerturatu zirenek. Aurretik, opari berezia jaso zuten Eskolako Maria eta Iriarteko Juanitok, herriko zaharrenak. Berritoki elkarrekin ospatuko ditugulakoan... Eskerririk. **Gazteluko Udala.**

Urreta-Bitarte baserriko Arantxa Berazak eta Joxe Urangak azken lanetan dihardute, zortzigarrenez, gaur bertan hasiko den Tolosako Babarrun Astean parte hartzeko

Albiztur eta babarruna

LEIRE GOROSTIDI

Aurtengoan ere iritsi da babarruna dastatzeko garaia. Tolosako lehen babarruna merkatuan baita dagoneko eta zonaldeko hainbat baserriarrek azken lanetan dihardute aste honetan bertan hasiko den Tolosako Babarrun Astean parte hartzeko.

Albizturko Urreta-Bitarte baserria izango da partaideetako bat. Ekainean hasi ziren babarruna ereiten eta bilketa aldiz, iraila amaieran eta urrian egin dute. Aurten, 1.500 m² landatu dituzte eta emaitza onak etorriko diren «itxaropenean» daude Arantxa Beraza eta honen gizon Joxe Uranga. Jakina da kopuru berdinak landatuta ere emaitzak, desberdinak izaten direla. «Baserriarrek beti egon behar gara zerura begira».

Zer du Albizturrek beste herriek ez dutena?

Ohitura bilakatu da Albizturgo baserrien parte-hartzea Tolosako Babarrunaren Astean eta baita hauen sariketa ere. Ezaguna da herri txiki honetako babarrunen kalitatea eta izena.

Baina zer du Albizturrek beste herriek ez dutena? Arantxa Berazak dioenez zerbait eduki behar du, irabazle asko eta asko, sarri, albiztuarrak izan baitira. Inguru kare harritxuak zerikusia omen du

«Atzerritik iristen den babarrunik ez du bertakoak duen salda lodia», dio Berazak

Albizturko baserriarrek askotan hartzen dute parte Babarrun Astean eta sari ugari lortu dituzte

lekaren kalitatean eta bertako jendeak buruturiko lana azipimarratzen dute Urreta-Bitarte baserrikoek.

Nork esango luke horren euskalduna den babarrunak jatorri amerikarra izango zuela. Arantxa Beraza bera ere, ez da urte asko honetaz jabetu zela. Ordurarte, Euskal Herrian betidanik egondako produktua zelako ustea zuen, eta ez atzerrikoa.

Harrigarria dirudien arren, oraindik ere jatorri desberdinetako babarrunak inportatzen dira

Euskal Herrira, eta honi aurre egiteko asmoz, 1994. urtean Tolosako Babarrun Elkarte sortu zen bertako produktua defendatzeko eta bereizteko helburuarekin. Berazak goraiatu bezala, «kalitatezko ziurtagiri hau sortu ezean, oso merke saldu beharko genituzke babarrunak.

Atzerritik iritsitako babarrun merkea ez dago bertakoarekin alderatzerik. «Salda ez da bertakoa bezainbeste loditzen», dio Berazak.

Eusko Label ziurtagiria

Elkartea banatzen duen Eusko Label kalitate zertifikatua izatea beharrezkoa da Tolosako Babarrun Astean parte hartu ahal izateko. Arantxa Berazak baieztatzen du, kalitate kontrola geroz eta zorrotzagoa da eta lehen baserrietan egiten ziren hainbat lan, gaur egun elkartean egiten dira.

ekoizleak babarruna erein, zaindu eta biltzeaz arduratzen dira eta elkartea aldiz gainerako prozesu guztiaz; aletu, bereiztu, izoztu, ontziratu, etiketatu eta merkaturatzeaz alegia.

Elkartea sortu aurretik babarrunaren kalitate aparta zalantzan jarri zezaketzen zenbait arazo egon ziren. Kasuak kasu, Madrilgo *Corte Inglesean* zomorroak aurkitu zituzten hainbat babarrun zakutan. Horrelakorik errepika ez dadin, Eusko Label ziurtagiriak leka preziatuaren bermea eta kalitatea ziurtatzen ditu, babarruna lasaitasun osoz jateko eta produktu honetaz orainarte bezala gozatzen jarraitzeko.



Bildutako babarruna. L.G.



Arantxa Beraza, Urreta-Bitarte baserrian dituen lurretan. L. GOROSTIDI

«Eguraldi kontuengatik atzeratu da aurtengo babarrun biltzea»

ARANTXA BERAZA > Baserriarra

Albiztur «Forma borobila eta kolore beltzak dira gure babarrunaren bereizgarriak», dio albizturtarrak

L.G.

Zazpi urte zituenetik Albizturko Urreta-Bitarte baserrian bizitu izan da Arantxa Beraza Arregi (Tolosa, 1943). «Familiako tradizioa izan da babarrunak ereitea eta berrogeita hamar urtez aritu garalarrunbateroko ferialeko azokara etortzen».

Babarrunaz gain besterik saltzen al duzue?

Bai. Arrautzen, barazkien, sagarren... salmenta egiten dugu. Orain dela urte batzuk arte, baserrian aritzen ginen hauen salmenta egiten baina adinean aurrera egin ahala albo batera utzi behar izan dugu.

Geroz eta zailagoa al da baserriko babarririk biltzea?

Bai horrela da. Baserriko laboreetan jarduteko makinaria geroz eta mekanizatuagoa dago eta izugarriko aurrekontuetan sartu ostean, nondik atera behar dugu hori ordaintzeko dirua?

Ba al du ezaugarri desberdinik Albizturko babarrunak?



L. GOROSTIDI

Bai, forma borobila eta kolore beltza dira Albizturko babarrunaren ezaugarri bereizgarriak. Gipuzkoako gainontzeko herrietan itxura luzexeagoa du, gurea aldiz, txikiagoa da.

Zer nolako zainketa behar dute babarrunak?

Baserri bakoitzak ohitura desberdinak ditu. Batzuk sarea erabili ohi dute babarruna ereiteko. Guk geuk ere honen froga egin dugu baina orokorrean, artoa erabiltzen dugu babestailu gisa. Babarrunak hainbatetan, gaitzaizaten dute zainetan. Batzuk intsektizidez baliatzen dira, guk ordea, ez dugu horrelakorik erabiltzen.

Saririk irabazi al duzue Tolosako Babarrun Astean?

1996. urtean aurkeztu ginen lehenengo eta orduan bigarren saria irabazi genuen. 1998. urtean aldiz, lehen saria egokitu zitzaigun. Albizturgo baserri asko saritu dituzte lehen, bigarren edo hirugarren premioekin. Zeozer izango du gure babarrunak.

Ba al duzue Eusko Label kalitate ziurtagiria?

Orain dela zortzi edo hamar urte lortu genuen Eusko Label delako babarrunaren babesa. Tolosako Babarrun Astean parte hartzeko derrigorrezkoa da elkarteko partaide izatea.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Dantzari Txiki Eguna, Azaro Kulturalaren barruan.
- **Irura.** Kilometroak 08ren aurkezpena: 18.00etan ume jolasak; txupinazoa 19:45ean; Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsoariak; 20:05ean urdaiazpiko mozketa eta barrikotea; norberak bere afaria eraman beharko du; afalondoren bertsoariak eta erromeria.
- **Tolosa.** VIII. Mus Txapelketa Azkarra Beotibarren 16:30ean.
- **Tolosa.** Babarrunaren Astearen baitan Zerkausian egingo diren bazkari eta aforietan izen-ematea www.tolosagourmet.com-en edo 943 697413 telefono zenbakian.

Antzerkia

- **Tolosa.** *El jefe de todo esto* komeida estreinatuko dute Leidor aretoan, 20:00etan.

Kultur asteak

- Amezketak.** Txikien Eguna; 11:00etan mendi marxta; ondoren bazkaria eskolako jangelan; 16:00etan haurrentzako jolasak; 19:00etan Ugarten Txintxarri eta ondoren sardina jatea Ugarteko frontoian.
- **Berastegi.** 09:00etan mendi irteera; 16:00etan, bildutako ondo eta perretxikoei buruzko azalpena eta hitzaldia Gaztainondon; 18:00etan gaztain erre jana, sargardoa, ardoa eta musikaz lagundurik Ipuliño frontoian; 22:00etan Txiki Plazasen diaporama.

Musika

- **Tolosa.** Abiba diskojaia Beotibar pilotalekuan (22:00- 05:00): musika, sms interaktiboak, gogoak, zozketak Autobus zerbitzua doan Ikaztegieta eta Berastegira.
- **Tolosa.** Jone eta Etxeren konzertua Bonberenean 22:30ean.

Jaiak

- **Amasa.** 12:00etan asto lasterketa mozzorrotuta; 14:00etan txekor jatea; 22:30ean bertso jaialdia Amaia Agirre, Joxe Agirre, J.M.Iraza eta Mendiluzerekin; ondoren berbera Laiotz taldearekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Tolosa, ONCEko kupoiairen protagonista

TOLOSA Hil honen 12an, astelehenerarekin, berezia izango da ONCEko kupoia tolosarrentzat. Hain zuzen ere, Tolosako irudi ederrena — Zerkausia Oria ibaia, Idiaketz Jauregia Santa Maria eliza eta Uzturre mendiak atzean dituela — izango da ikusgai bertan, Tolosako Udaleko logoarekin batera. Herenegun aurkeztu zuten udaletxean kupoia hau Olatz Peonek eta ONCEko ordezkari Gipuzkoan Kristino Burgosek. Ekimena hau ONCEk eta Udalak elkarlanaren ondorio da. Guztira 5 milioi kupoia jarriko dituzte salgai.



A Agurrak



Urte askoan!

Unax Alberdi Izueta (Anoeta). Gaur urtebete. Zorionak eta pa handi bat etxekoan partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

hitza ren eskutik

Pirritx eta Porrotx

PANPINAK

eta DVDa etxeko txikiek
jolasteko



"Mari Motots"
ikusizunaren DVDa

18€



Pirritx eta Porrotx
(motxila opari)

40€



Pirritx
(poltza opari)

20€



Porrotx
(poltza opari)

20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01

hitza info